

# RUFO CRIADO

2012.01.20 - 2012.04.09

## rekalde

Alameda de Recalde, 30 | 48009 Bilbao  
Tel. +34 94 406 85 32  
www.salarekalde.bizkaia.net

## Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30  
Igande eta jai egunetan: 10 - 14  
Astelehenetan itxita

## Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h  
Domingos y festivos: 10 - 14 h  
Lunes cerrado

## Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h  
Sundays and holidays: 10 - 14 h  
Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free



rekalde



Euskera

# RUFO CRIADO

Ur Soinuak

2012ko urtarrilak 20 – apirilak 9

- Rekalde Aretoak Rufo Criadoren margolanen erakusketa aurkezten du. Criado (Aranda de Duero, 1952) ereduak artista da margolaritza garaikidearen esparruan, eta haren lanak bilakaera argia izan du, tradiziozko euskarrietatik irudien sorkuntza digitalera iritsi arte.
- Rufo Criadok Rekalde Aretoan ikusgai jarri duen proiektuaren abiaburua *Ur soinuak* lana da. Lan hori lehenengo aldiz ikusi ahal izango dugu osorik Bilbon. Hamar margolanez eraturako sekuentzia bat da (2002. urtean xafla galbanizatuan eginak).
- Erakusketako lan guztiek lotura dute natura-ingurunearekin eta bereziki urarekin; ibilbide askotariko bat eratuz, ahaleginak egiten ditu gai horrekiko duen interesa erakusteko, ura oinarritzko gaia baita margolaritzan izan duen ibilbidearen garapenari eta bilakaerari begira.
- Erakusketan, 1994. eta 2010. urteen artean egindako berrogei lan inguru aurkezten ditu, eta hainbat euskarritan egindako margolanak, argi-kutxak (*Ojos de agua* sailekoak) eta *En la distancia verde* proiektioa ere bai.
- Rufo Criadok erakusketa jarri zuen Bilbon 1992. urtean, Sol Panerak zuzendutako Aritza galerian.


rekalde Alda. Recalde, 30 - 48009 Bilbao - Tfno. +34 94 4068532 - www.salarekalde.bizkaia.net

## ERAKUSKETA

Natura-ingurunea barneratzeko prozesua etengabe azaldu da Rufo Criadorek jardute artistikoan, eta, denboraren poderioz, gero eta objektibotasun gutxiagoz ageri da. Natura oinarrizko osagaia da, eta haren inguruan egituratu eta eraiki ditu lanak. Bestalde, ura, ibai eta isla den aldetik, bere lan askoren sorburua edo ezinbesteko aipamena da. Hortik abiatuta, ikusmeneko sentipenak egituratzen ditu, hautemandakoa arrazionalizatzen du, eta kolorearen bidez komunikatzen du.

Rufo Criadorek hausnarketa plastikoaren inspirazio-iturria den naturaren beste oihartzun bat balitz bezala, *Ur soinuak* erakusketan bilduta dauden lanek zuzeneko harremana dute urarekin, batzuek era esplizituan eta beste batzuek ura gogora ekartzen duen era geometriko eta abstraktu batean. Criadorek arabera, "ura bizitzaren metafora balitz bezala jarduten da, gardentasuna dakar garai uher eta arrotzetan, eta positibismoaren aldarrikapena da, eguneroko errealitatearen ispiluan bere buruari begiratzen dion positibismoarena". Era berean, lanek zerikusia dute lekuaren eta hurbiltasunaren ideiarekin, zeren, Rufo Criadorek ustez, esperientzia estetikoak lotura zuzena baitu bere estudioko natura-ingurunearen ikusmen eta zentzumen aldeko asimilazioarekin.

Rufo Criado adierazkorra eta sintetikoa da, keinurako joera du, geometrikoa da, kolorearekin bikaina da, eta bilakaera izan du, alde batetik, lanaren eraikuntzan eta,



*Ventana que da al río, 1995.*

bestetik, material berriak bereganatzean. Bidimentsionaltasunetik hiru dimentsioko egiturara igaro da, eta formatu ortogonaletik zirkularra. Horren ondorioz sortu diren piezek ez dute beren margolaritzako erreferentzia alde batera utzi, baina aurrera egiten dute objekturantz, eskulturarantz.

Izan ere, Rufo Criado, akrilikoa erabiltzeaz gain, aspaldi baliatu zituen pintura industrial, argazkigintza eta ordenagailuz sortutako pintura, kolorearen nolakotasun jakin bat aurkitzeko eta gune piktorikoaren mugak eta horrek naturarekin

dituen harremanak etengabe miazteko.

Egindako esperimentazioaren ondorioz, xafla, saretoa edo zura baliatzen ditu euskarri gisa. Horrek naturaz bestelakoa den mundu batera eramaten gaitu, hirigunearekin lotura duen mundu batera, hain zuzen, publizitateko hesien edo seinaleen mundura, eta paisaiaren eta hiriko diseinuaren arteko hibrido moduko zerbait egiten du horrela.

Adibidez, *Ojos de agua* sailean (*Ur begiak*, 2007), argi-kutxetan estutzen du xafla metalikoz egindako gerriko batez organikotasunaren aztarna, kasu honetan ondoko ondoko kolore-planoen azpian irudikatutako argazkigintzako basotxo baten bidez irudikatutako organikotasuna. Alabaina, aldi berean, konposizio zirkular horiekin, badirudi margolariak aitortu nahi duela "begi-hondo hori" beti egon dela paisaiari begira.



*Ojos de agua. Ref. 270407, 2007*

Bestetik, *Días de Otoño. Reflejo nº1* izeneko lanean (*Udazken egunak. 1. zk.ko isla, 2006*), Rufo Criado bizkortasunez eratzen du piezaren izaera askea, eta sintesi-irudi, pintura, paisaia eta hiri-altzariaren arteko hibridazio erabakia.

José María Parreñok, hau da, erakusketako katalogoko saiakeraren egileak, honela azaltzen du: (...) "bere obrak aukera ematen du abstrakzioa sintesi modura irakurtzeko, baina arte puru gisa irakurtzeko ere bai. Koadroa ikur eta, aldi berean, eraikuntza gisa interpretatu ahal da. Horrez gain, alde batetik, Criado geometriara egokitzen da (hau

da, espazioa arautzera), baina, bestetik, indar adierazkorra dago, batzuetan pintzelkadaren bidez zehaztua, eta, beste batzuetan, berriz, hautatutako kolorearen bidez finkatua".

## ARTISTA

[www.rufocriado.com](http://www.rufocriado.com)

RUFO CRIADO (Aranda de Duero, 1952) bere jaioterrian bizi da, eta bertan lan egiten du. Hiri horretako A UA CRAG taldea sortu zuen kideetako bat izan zen (1985ean sortutako Ekintza Artistiko eta Espazio Alternatiborako taldea). Talde hori jardunean aritu zen 1994. urtera arte, esku-hartze artistikoak egin zituen hainbat lekutan eta trukeak egin zituen Frantzia, Alemania, Holanda eta Kanadako taldeekin.

Autokudeaketako taldeko esperientzia artistiko horren ondoren, bere lanek kutsu arrazional eta objektualagoa hartu zuten, eta, aldi berean, garapen sekuentzialen bidez egituratu ziren. Garai hartan, naturako sentipenak adierazteko eta itzultzeko interesa piztu zitzaion, eta natura interpretatzeko molde berri baten bila ere hasi zen.

1994an, Madrilgo AELE-Evelyn Botella galeriarekin hasi zen lanean, eta gaur egun bere ordezkaria da. Banakako hainbat erakusketa egin ditu galeria horrekin, eta, gainera, nazioarteko ondoko ondoko azoka batzuetan hartu du parte, adibidez, ARCO eta ART COLOGNE azoketan (Kolonía, Alemania). Bestetik, erakusketa hauek ere nabarmendu behar ditugu: Janus Avivson Gallery, Londres, Paris eta New York (1997-1999), eta Adriana Schmidt galeria, Stuttgart, Alemania (1999).

Bere azken proiektuen artean hurrengoak nabarmentzen dira: *Ojos de agua* erakusketa ibiltaria Cervantes Institutuak antolatua, Palermon, Napolin, Varsovia, New Delhin eta Tokion (2007-2009); Burgosko CABeko berrikuspen garrantzitsua eta *Treinta y tres lágrimas de silencio* (2011), Valladolidedeko Patio Herreriano Museon.

Rufo Criadorek lanak museo eta bilduma hauetan jasota daude, besteak beste: Vitoria-Gasteizko ARTIUM, Valentziako IVAM, Leongo MUSAC (A *Ua Crag* funtsa), Museo Unión Fenosa de La Coruña, Museo de Bellas Artes de Santander, Museo de Burgos, Calcografía Nacional de Madrid, Colección Caja de Burgos (Banca Cívica), Fundación Coca-Cola, Colección CajaMadrid, Colección Helga de Alvear eta Colección Pilar Citoler.